

Sagardun Andre Mariak



Juan San Martin-ek Hondarribiko Parrokiari buruz idatzitako liburuaaren azala

Zenbaitek galdetu didate ea *Santa María de la Asunción de Hondarribia* (1998) liburuaren izenburuan zergatik ez nioen gehitu "y del manzano". Egia esan,

aintzina Santa Maria izen soila baizik ez zuen. Eliza katolikoak, bere liturgian, Ama Birjina hil ondotik zeruratzearen gloriagarritz Jasokunde (Asunción) onartu zuen eta



Menaje
Industrial
Electricidad
Copia de llaves
Tornillería inoxidable

MARINEL

Burdingegia
Ferretería

Beñat Etxepare 12
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

Jon Alzaga

- Urdai azpikoak
- Hestekiak
- Gaztak
- Foies
- Edariak

San Pedro kalea 45 Tel. 943 64 44 70
20280 HONDARRIBIA

geroztik hasi ziren Santa María de la Asunción deitzen. Baina Elizaren legez Sagardun (del Manzano) izenekorik ez da.

Zeren, "del Manzano" geroztik erantsi zaiona da, eskuan daraman sagarragatik, baina ez da liturgian sartua. Euskal Herrian, edonork dakigun bezala, kokapenezko edo inguruko toki-izena gehitzen zaie Andra Mariei. Gainerako izen motak gogoko zaizkitez Espainiako hegoaldekoek, baina ez da holarikorik gure herrian, kanpotik sartua izan ezik.

Har dezagun Aita Jose Adriano Lizarralde zenaren *Andra Mari* (1926), lehen liburukia, Gipuzkoako Andra Mariak katalogatzen dituen. Bertako 47-66. orrialdeetan aurkituko ditugu hamazazpi Andra Mari sagardun. Honako hauek dira, agertzen dituen ordena berean: San Adrian ermitakoa Aizkorrin, Iruetxetakoa Zegaman, Uriartekoa Elgetan, Arratekoa Eibarren, Santutxu Uribarrikoa Oñatin, Izaskungoa Tolosan, Lazkaoko parrokian dagoena, San Prudentzio ermitakoa Lazkaon, Buiñondokoa Bergaran, Antiguakoa Antzuolan, Gurutzetakoa Idiazabalen, Dorletakoa Leinzko-Gatzagan, Santilaurente ermitakoa Aretxabaletan, Zikuñagakoa Ernanin, Altzugaratekoa Alzagan eta Loinazkoa Beasainen. Arte

estiloz, gehienok gotikoak dira, beraz, XIV eta XV. mendeetan kokatzekoak.

Baina, zer adierazten du sagar horrek, bere sabeleko fruituaren sinboloa baizik?

Orain Hondarribiko Santa Maria parrokiako altare nagusian dagoen Andra Mariaren irudia barroko estilokoa da, oso ederra benetan, XVII. mendean Italiatik ekarria. Argi dago sagarra duela eskuan.

Sagar, euskara zaharrean fruitua zein zuhaitza bera ziren, eta oraindik ere hala da euskaldunik gehienontzat. Koldo Mitxelena zenaren *Apellidos vascos* (1953) liburuaren 98. orrialdea begiratzea aski zaigu, non datozen lekuko sagar izenetik sortzen diren hitz eratorriak duten hainbeste era jator.

Gerorantz zenbait tokitan bereizten dute: fruitua, sagar, eta fruitua ematen duen zuhaitza, sagarrondo.

Kezkaturik dabilzanak, jakin bezate, eritzi horietan oinarriturik, ez nintzen ausartu nire liburuaren izenburuan "y del Manzano" gehitzen.

JUAN SAN MARTIN

EROSLE

CHARTER SUNDUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 HONDARRIBIA

TRUCK
DISCOTECA
HONDARRIBIA
Foru Kalea

Pub
Kaizar
Almirante Alonso Kalea, 12